AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

KULTURA SAILA

5116

AGINDUA, 2011ko urriaren 3koa, Kulturako sailburuarena, goi kargudunaren idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Agindu honen eranskinean adierazten den lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia egitea erabaki du sail honek, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c) artikuluan (1989ko uztailaren 28ko EHAA) erabakitakoaren arabera eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman duelarik.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Agindu honetan eskainitako lanpostua eskatzeko, ezinbestekoa izango da karrerako funtzionarioa izatea eta ezarritako baldintzak betetzea.

Bigarrena.– Interesdunek eskaera Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara bidaliko dute eta, bertan, euren datuak eta betetzen ari diren lanpostua adierazi beharko dituzte. Bestalde, eskaera aurkezteko 15 egun balioduneko epea izango dute, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Izangaiek eskaerarekin batera curriculuma igorri behar dute, eta bertan datu hauek adierazi:

a) Titulu akademikoak.

b) Administrazioan eta, hala badagokio, enpresa pribatuetan bete dituzten lanpostuak.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, dakizkiten hizkuntzak eta, oro har, izangaien ustez adierazgarriak diren bestelako merituak.

Horrez gain, lanpostua betetzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa eta adierazitako merituen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dituzte; halaber, egoki iritziz gero, nahi beste argitalpen, txosten eta beste edozein dokumentu ere aurkeztu ahal izango dute.

Laugarrena.– Deialdi hau Kulturako sailburuak ebatziko du agindu baten bidez. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik kontatzen hasita, gehienez hilabeteko epean.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Bere aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke Kulturako sailburuaren aurrean, agindua Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo administraziorekiko auzi-errekurtsoa jarri Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Aldizkarian argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 3a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

ERANSKINA

Lanpostua:

- Izena: Goi-kargudunaren idazkaria (520010/88).
- Lekua: Euskara Sustatzeko Zuzendaritza.
- Lantokia: Vitoria-Gasteiz.
- Taldea: C/D.
- Kidegoak: C1 administraria / D1 administrari laguntzailea.
- DO Maila: 18.a.
- BO Maila: VI-A.
- Hizkuntza-eskakizuna: 2.a. Derrigortasun-data: 2000-03-31.

Lanpostua eskuratzeko baldintzak:

1.– C1 edo D1 kidegoko karrerako funtzionario izatea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan zerbitzu aktiboan aritzea funtzionario gisa. Halaber, deialdi honetan parte hartzeko aukera izango dute: zerbitzu berezietan ari direnak, semealabak jagoteko lan-utzialdian daudenak, beste administrazio publiko batzuetan ari direnak eta borondatezko edo derrigorrezko lan utzialdian daudenak –azken horiek, gutxieneko epea bete badute–. Aipatutako guztiak zerbitzu aktibora itzuliko lirateke prozedura honen bidez.

3.– Gutxieneko lan-esperientzia: administrarien kidegoan urte bete, edo administrari laguntzaileen kidegoan bi urte.